

Ainhoa Larrañaga

HUHEZIKO ETA LANKIKO KIDEA

## Manipulazio instituzionala

**B**ilbon urtero egiten den Gaboneta-ko Haur Parkean izan gara aurten ere Angiozartik joandako haur, guraso eta irakasle taldetxoak. Urtero antolatzen den parkeak badu nire irudikoz zer aldaturik, baina oraingoan, aurtengo pasadizo larrienari helduko diot.

Ertzaintzak eskaini du aurten tirolina egiteko aukera, baina trukean bidesari nahiko garestia ordaindu behar izan dugu bertara gerturatu garenok. “AHT bai, noski! ¡AHT sí, claro!” zioen tirolina-jokoan bertan itsatsita zegoen kartel handi batek. Kartelak zeukan letra estiloa ere AHT Elkarlanean taldeak (azpiegituren aurka lan egin duen eta egiten ari den taldea) erabili ohi duena zen. Hiritarrengan nahasmena sortzeko aukera bikaina aprobetxatu dute, irudi eta estilo bera erabiliz.

Angiozar Bergarako auzo txiki bat da eta aipatu azpiegiturek, bertako bailara hautsiko du. Uler-tzekoa beraz bertakook kartela ikustean pilatutako amorrua. Joan nintzen antolatzaileek zeukaten harrera gunera eta bertan nire ezinegona adierazi nuen. Arrazoia nuela esan zidaten.

Administrazioa ailegatu bada umeentzako den festa batean AHTren aldeko propagan-



JUDITH FERNANDEZ

da egitera, ahul dago benetan. Ziurgabetasun handiz ari dira burutzen azpiegiture erraldoia. Gizartea heldua da eta ezin dai-teke hiritarra lelotzat hartu. Azpiegituren inguruko informazio objektiboa eman ondoren, demokrazia sano batek eskatzen duen neurrian, herriari galdetzea dagokio gobernuari. Eta guztiz kontrara, umeentzako jaia baliatu du trenaren aldeko propaganda instituzional pobrea egiteko.

Ziurgabetasun ekonomikoa nabarmena da, baina gizartearen babesik ez duela ere badakite jakin. Hasiak dira obrak han eta hemen eta gaur oraindik ez daki-gu zein onura ekarriko digun trenak, hasiak gara ordea kalteak pairatzen. Baliabide ekonomikoaren xahutzea, dauzkagun lur apurren desjabetze eta desagertzea, maila kultural eta sozialean ekarriko duen eraldaketa eta guzti, hau dena, manipulazio instituzional pobreenaz lagundurik.

Gizarteak berak ere badu gertatzen ari dena irensteko gaitasun itzela. Ez dugu txintik egiten eta normaltasun osoz ari gara azpiegituren obrak eta desinformazioa bera pairatzen. Kontziente gara eta lo gaude, ala kontziente ere ez gara? ■

«AHT bai, noski! ¡AHT sí, claro!  
zioen kartelak (...) Kartelak zeukan  
letra estiloa ere AHT Elkarlanean  
taldeak erabili ohi duena zen.  
Hiritarrengan nahasmena sortzeko  
aukera bikaina aprobetxatu dute,  
irudi eta estilo bera erabiliz

## TXANDAN

Edu Zelajeta



Gaurko gazteekin harremana duten heldu ugari belaunaldi arteko amua ederki irentsia dute, zoritxarrez. Izan ere, nire ingurua *desgaztetu* ahala, gaurko gazteen kontrako komentarioak ohikoago bihurtzen hasi dira. Adinak ez du barkatzen, nonbait.

Ezin gaurkoagoak diruditen kritika latzok, ordea, Sokratesek eta Hesiodok euren garaiko gazteei buruz jaulkitakoen oso-oso antzekoak dira (K.a. V. mendean eta VIII. mendean, hurrenez hurren): “Gaurko gazteek ez dute autoritaterik errespetatzen eta tiranoak dira” eta “ez dut inolako esperantzarik

## Gazteak

gure herriaren geroaz, gazteok jasanezinak eta ikaragarriak direlako”. Areago, 4.000 urte inguru dituzten gisa bereko testigantzak ere ba omen daude Egipton eta Babilonian.

Historiaren soka luzeak ageri duenez, adinaren poderioz bizitzaren gaineko gure ikuspegiak okertzeraz jotzen du maiz. Faltsua da, hortaz, hainbate-tan aditu beharko dudana eta dagoeneko nardatua naukan mezu apokaliptikoa: gaurko gazteak gain-behera doaz.

Gaurko gazteak, baina, atzoko eta biharkoen pare dabilta, baita urte batzuen buruan beren aurrekoei gezia botatzen ere. ■